



ingeniaritza  
**ELEKA**  
Linguistikoa

# XUXEN IV Office Mac

Eskuliburua



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

Egileak:



[ixa.si.ehu.es](http://ixa.si.ehu.es)



ingeniaritza  
**ELEKA**  
Linguistikoa

[www.eleka.net](http://www.eleka.net)

## Aurkibidea

1	Hitzaurrea.....	3
2	Eskakizunak.....	4
	2.1 Sistema eragilea.....	4
	2.2 Beharrezko softwarea.....	4
3	Instalazioa.....	5
	3.1 Instalatzaileari esan XUXEN IV fitxategiak non kopiatu behar dituen.....	7
	3.2 Instalatu eta gero fitxategiak toki egokian kopiatu Finder bidez.....	8
4	Erabilera.....	9
	4.1 XUXEN ortografia zuzentzailearen erabilera.....	11

# 1 Hitzaurrea

Dokumentu hau XUXEN IV euskarazko ortografia zuzentzailearen Mac bertsioaren eskuliburua da.

XUXEN IVk Baionako *Hizkia Informatiquen* garatutako kodea erabiltzen du.

XUXEN IVk Xeroxek garatutako kodea erabiltzen du. Xeroxek garatutako zati horiei ohar hau dagokie: Copyright ©, Xerox Corporation, 2008.

## **2 Eskakizunak**

### **2.1 Sistema eragilea**

Mac OS X

### **2.2 Beharrezko softwarea**

Word X edo Word 2004.

### 3 Instalazioa

XUXEN IV instalatzeko 1. irudiaren dmg fitxategian klik bikoitza egin. Ondorioz, 2. irudiaren XUXEN IV unitatea agertuko da zure makinaren mahaigainean. 3. irudian XUXEN IV unitatearen edukia agertzen da.



1. irudia: dmg fitxategia.



2. irudia: XUXEN IV unitatea




3. irudia: Instalatzailea.

*XUXEN IV Instalatu.pkg* fitxategian klik bikoitza eginez, instalatzailea abiaraziko da. Hortik aurrera, nahikoa da instalatzailearen urratsak jarraitzea.

Instalatzailea saiatuko da instalatuta daukazun Word bertsioa detektatzen eta XUXEN IV-ren fitxategiak toki egokian kopiatzen. Instalazioa ongi bukatzen bada, XUXEN IV toki egokian instalatuta eta konfiguratuta dagoela esan nahi du. Kasu horretan, instalatzaileak bistaratuko duen azken leihoa 5. irudikoa da. Instalatzaileak 6. irudikoa bezalako errore mezu bat erakusten badu, XUXEN IV-ren fitxategiak eskuz kopiatu beharko dituzu Office instalazioaren karpeta egokian. Jarraian horretarako aukera biak azalduko ditugu.




4. irudia: Instalatzaileak porrot egin du.



5. irudia: Instalazioa ondo bukatu da.

### 3.1 Instalatzaileari esan XUXEN IV fitxategiak non kopiatu behar dituen.

7. irudiaren leihoko “Aukeratu...” botoia sakatu eta aukeratu Office instalazioaren zuzentzaileen karpeta. Office X bertsioaren instalazio estandarren kasuan, zuzentzaileen karpeta 6. irudian ikusten den leihokoa izango da. Kontuan izan, instalatzaileak porrot egin badu, zure instalazioaren direktorioa ez dela hau izango, antzeko besteren bat baizik.



6. irudia: Office X instalazio tipikoaren zuzentzaileen karpeta.



7. irudia: Helburu karpeta autatu.

### 3.2 Instalatu eta gero fitxategiak toki egokian koptatu Finder bidez.

Instalazio estandarra egindakoan, 8. irudian agertzen den bezala, XUXEN IV karpeta sortzen da aplikazioen karpetan. Karpeta horren edukia hartu eta 6. irudiko karpetan koptatzea nahikoa da XUXEN IV-ren instalazioa bukatzeko. Gogoan izan, 6. irudian agertzen den karpeta ez dela berdin-berdina izango zure ordenagailuan. Garrantzitsua dena zera da: Office instalazioaren “Zuzentzeko tresnak” karpeta aurkitzea eta XUXEN IV karpetaaren edukia bertan koptatzea.






8. irudia: Instalazio estandarrak sortutako karpeta.

## 4 Erabilera


Ortografia nahiz gramatika zuzentzaileak erabiltzeko, zuzendu nahi den testua euskaraz dagoela adierazi behar zaio Word-i. Horretarako biderik errazena euskaraz dagoen testua aukeratzea eta ondoko irudian agertzen den zerrendan “Euskara” hautatzea da.

. irudian testua euskaraz idatzita dago (akatsekin), baina Word-ek gaztelaniaz balitz bezala zuzentzen du.



9. irudia: Testua gaztelaniaz markatua.

Testua aukeratu, “Tresnak/Hizkuntza” atalera joan, eta 10. irudian ikus daitekeen zerrenda agertuko da. Zerrenda horretan “Euskara” klikatzen eta onartzen badugu, aukeratutako testua euskaraz zuzenduko du Word-ek.




10. irudia: Hizkuntz-aukeratze zerrenda (*Españolen* klik bikoitza eginez ateratzen da).

Testua euskaraz markatzen bada, Word-ek zuzenketa euskaraz egingo du. Hitz okerrak gorritz azpimarratuko ditu eta esaldi susmagarriak (gramatika-akatsen bat dutelako) berdez. Saguaren eskuineko botoiarekin gorritz azpimarratutako hitz baten gainean klik egiten badugu, proposamenen zerrenda bistaratuko da, 11. irudian ikusten den moduan.

#### 4.1 XUXEN ortografia zuzentzailearen erabilera

Ortografia zuzentzaileak atal honen sarreran azaldutakoaz gain, ez du argibiderik behar. Nahikoa da jakitea hitz ezezagunak gorritz azpimarratuko dituela.



11. Irudia: Testua euskaraz markatuta.